

Irazabalbeitia: «Unibertsitatea ezin dugu boluntarismoan oinarritu»

«Lan taldetik planifikazio eta diseinuraino izugarrizko jauzia dago»


Larunbatean Iruñean egin zen Biltzar Orokorrean, euskal unibertsitateari buruzko hausnarketak hasteko lan taldea osatzea erabaki zen UEUn. Erabaki honen bidez teoria hutsetik zerbait konkretura igaro da eztabaida, baina bidea oraindik oso luzea da, Iñaki Irazabalbeitia UEUko zuzendariak adierazi digunez.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

EGUNKARIA.—Zer nolako balantzea egin dezakezu larunbateko bilerari buruz?

IÑAKI IRAZABALBEITIA.—Bilera hori beste batzuen ondorioa edo jarraipena izan zen. Hasierako helburuak UEU sendotu eta jendearen partaidetza bultzatzea izan ziren, baina hortik beste ideia batzuk sortu ziren, tartean balizko Euskal Unibertsitateari buruzko hausnarketak. Honetaz ere iritzi kontrajarriak daude, eta batzuk ez dute garbi ikusten unibertsitate berri bat sortu behar denik, horrek nolabaiteko ghettoa sor dezakeelako, eta ez lukeelako besteen maila izango. Beste batzuren ustez, ordea, euskal unibertsitate propio bat sortu behar da. UEUk honi buruzko erreflexioari eman nahi dio hasiera, eta horretarako lan taldea paratu du, egoera eta aukerak aztertzeko.

EGUNKARIA.—Esan daiteke, beraz, lan talde hori paratzea urrats bat dela.



Iñaki Irazabalbeitia, UEUren zuzendaria.

A.BAYO.

IRAZABALBEITIA.—Bai, noski, orain arte teoria hutsean aritu bait gara. Honi buruzko hausnarketak hastea eta lan taldeak paratzea aurreapausu bat da, baina hortik planifikazio eta diseinu bat egitera sekulako jauzia dago. Lehenik eta behin, UEUk bakarrik ezin du horrelakorik egin, gizartearen sentsibilitate eta ikuspegi sozial desberdinak hartu behar bait ditu kontutan, eta guztiek

hartu beharko dute parte lan honetan. UEUk bultzatuko ditu lana eta eztabaida, baina gizartearen beste zati guztiekin batera.

Halaber, balizko unibertsitate hori lehendabizi definitu egin behar da, eta, garrantzitsuen, debate hori gizarteratu behar da. Gaur egungo gizartearen ustez, euskal unibertsitatea badago, eta jendearen buruan sartu behar dugu Euskal Herrian dauden

✓ «Erakunde publikoek euskal unibertsitatearen aldeko apostua egiten ez badute, ez dago zer eginik, eta zerbait ateratzen bada, bigarren mailakoa izango litzateke».

unibertsitateak ez direla euskal unibertsitateak, euskaraz aritzen ez direlako. Hortik aurrera has gitezke serioago hitzegiten euskal unibertsitateaz. Halaber, esan behar da gaur egun ez dugula maila arrunteko unibertsitatea sortzeko babilabiderik, ez irakaskuntza mailan, ez ikerkuntza mailan, ez materialean. Hau da, erronka izugarria da, eta epe luze-rakoa.

EGUNKARIA.—Eta noren ardura izango litzateke baliabide horiek ziurtatzea?

IRAZABALBEITIA.—Gizarteaz zuzentzen dutenen ardura, eta horretarako guk konbentzitu behar dugu plangintza honetan sartzeko. UEU laguntzen ari da, jendea prestatzen eta, baina ezinezkoa da dena UEUk prestatzea.

EGUNKARIA.—Honek esan nahi du laguntza publikorik gabe ezin izango litzatekeela euskal unibertsitatearik sortu?

IRAZABALBEITIA.—Erakunde publikoek proiektu honen aldeko apostua egiten ez badute, ez dago zereginik, eta zerbait sortzen bada, bigarren mailakoa izango litzateke.

EHUren ekonomia kontrolatzeko auditoria onartu du Kontseilu Sozialak

DONOSTIA

EHUren —Euskal Herriko Unibertsitatea— Kontseilu Sozialak auditoria sistema bat ezartzea erabaki du erakunde honek irakaskuntza mailan egiten dituen iharduerak ebaluatzeko. Auditoria sistema hau iraunkorra izango da eta berarekin batera presupostu sistema ere jarriko du martxan EHUren Kontseilu Sozialak.

Erabaki hau atzo bertan jakin erazi zuen erakunde honek egin zuen azken bileran. Kontseilu Sozialaren zeregin nagusia da, agente sozial desberdinek unibertsitate munduan parte hartzea bultzatzea.

Ikerketa honek xede zehatz bat badauka: EHUren aurrekontuen betirako kontrol sistema definitzea, hain zuzen ere. Sistema mota hau Kontseiluaren Finantza Batzordeko partaideei hel erazi zaie. Lagun hauek ez dute oraindik hartu Unibertsitateak aurtengo ikasturterako

onetsi duen aurrekontuaren aurreproiektua.

Unibertsitateak lehenago eman behar zuen aurreproiektuaren berri baina atzeratu egin behar izan du, Gobernu Batzordeak oraindik ez duelako lehen dokumentua onartu. Unibertsitatearen Gobernu batzordea gorengo organoa da irakaskuntza erakunde honetan, eta beronen onepena beharrezkoa da hori onartu ahal izateko.

Kontseilu Sozialak diru kontuak fiskalizatzeko eskatu dio Kontu Publikoko Euskal Epaimahaiari Unibertsitatearen ihardueren diru iturriak eta finantza bideak aztertzeko orduan.

Kontseilu Sozialaren neurri hauek kontrol estu eta zehatzagoa ezarri nahi dute EHUren barnean. Auditoria eta aurrekontu sistema hau azkenaldian aireratu diren ustezko iruzur ekonomikoak ekiditeko medio egokia izango litzateke erakunde honetako iturrien iritziz.

Graduatu osteko ikastaro programa berria azaldu zuen Barberak

I.E. / BILBO

Datorren ikasturterako antolatutako Graduatu osteko eta Doktoredutza egitarauaren berri eman zuen atzo Emilio Barbera EHUko errektoreak. Aurreko urteetan ere, Doktoredutzarako programak antolatu baditu unibertsitate horrek, aurtun eskaintzen ditu lehen aldiz Graduatu ostekoentzat egitarau osoak, Barberak atzo prentsaurrekoan argitu zuenez.


Doktoredutza ikasturteak, arlo akademikoan sakontzeko eta jarraitzeko asmoa dutenentzat zuzendu eta prestatuta badaude ere, ez da berdina gertatzen Graduatu ostekoekin, horiek lizentziatu eta diplomatu berriak arlo profesionalean prestatzeko eraturik bait daude. Barberaren esanetan, oi-

narrizko ikasketa unibertsitatean eta gizartearen dagoen eskakizunaren zubia izango dira Graduatu ostekoentzakoak, eta antolaketan eskakizun hori izan da funtsezko oinarria.

Programaketa horren bidez, 51 espezialitaterako eskaintza egin da, eta 1.100 ikasle barneratuko ditu. Graduatu osteko barruan, bi mota izango dira: alde batetik, masterrak; eta bestetik diplomaturak, baina biak ere aurrez lortutako tituluen gehigarriak izango dira.

Bestalde, programaketa horien bidez, EHU Europako unibertsitateen mailara hurbildu ahal izango da Barberaren ustez.

«Hori da, Europako unibertsitateen mailara gehien inguratuko gaituen pausua», esan zuen hitzez hitz.



Larraonako ikastetxea.

Gaurko Egitaraua

9,30ak: Natur Zientziak
Basoaren goi-muga: bizitzaren arriskuan

Irakaslea: I. Garin

9,30ak: Soziologia
Immigrazioa EAEn.

Irakaslea: Aierdi

9,30ak: Zuzenbidea
Atzeritarrak

11,30ak: Musika
Melodia herrikoia

Irakaslea: Arana

12ak: Natur Zientziak
Itsas mailaren aldaketak historia geologikoan

Irakaslea: Aranburu

16,30ak: Soziologia
Erakunde errepre-siboak

Irakaslea: A. Urdanpilleta

16,30ak: Linguistika
Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa

Irakaslea: G. Aurrekoetxea

16,30ak: Natur Zientziak
Kartografia: mapa geologikoen interpretazioa

Irakaslea: Z. Aurrekoetxea

Arantxa Aranburu



ORDIZIAKO UDALA

Ordiziako Udalak honako langile hauek behar ditu:

- ♦ ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUA
- ♦ ADMINISTRARIA
- ♦ 2 UDALTZAIN
- ♦ GIZARTE LAGUNTZAILEA
Funtzionari izaeraz
- ♦ ATEZAINA
Lan-kontratu mugagabeaz
- ♦ ITZULTZAILEA
Denboraldiko funtzionari izaeraz.

Eskaera-orriak eta berri gehiago:

Ordiziako Udaletxea
Plaza Nagusia, z/g.
Tfna.: (943) 88.58.50